

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 430/2019 Erabakia, uztailaren 8koa. Onestea Elena Aulestiarte Laca konfiantzazko eginkizunak dituen behin-behineko langilearen kargu uztea

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 8ko 491/2015 Erabakiaren bidez, Elena Aulestiarte Laca Andrea izendatu zen, konfiantzako behin-behineko langileek betetzekoa den diputatu nagusiaren idazkari lanpostuan.

Nahiz eta behin-behineko langileek beren karguak modu automatikoan uzteko data den konfiantza edo aholkularitza ematen dioten karguak bere postua uztearena, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriaren 2. Apartatuan jasorikoarekin bat etorritik, foru administrazioari dagokio esanbidezko ebazpena ematea interesdunarentzat.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8. artikulua esleiturako eskumenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Elena Aulestiarte Laca konfiantzako eginkizunetarako behin-behineko langilearen kargu uztea.

Bigarrena. Kargu uzte hori 2019ko uztailaren 5etik aurrera izango du eragina, diputatu nagusiak bere kargu uztearen ondorioz, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Hirugarrena. Ebazpen horren kopia zigilatua helaraziko zaio interesdunari.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE